

Herrietako sarreretan izaten den harrizko urkabea. Bertan jartzen zituzten hildakoen buruak edo jendea, lotsagarri uzteko.

Pikatik heldu da. Jakina da eta tradizioak halaxe dio, pikota izan baino lehen, borreroek aizkoraz moztutako buruak bide ertzetan jartzen zirela, lurrean sartutako zutoinen gainean. Ohitura horrek eredugarritasuna zuen helburu, alegia bidaiaria mutu uztea ikuskizun lazgarri haren aurrean. Eta herriari esaten zioten hura zela krimenaren fina eta ordaina.

Lakuntzako pikotak ez du estilo arkitektoniko bereizgarriarik. Egilea bertakoa izan zen, segur aski, eta XIV. mende aldera jaso behar du.

Harlandu zabalena bost sailek osatzen dute Lakuntzako pikota. Harriak ederki landuak eta zizelkatuak daude. Zabalena besteak halako bi da garaieran. Aurrean herriko armarrak dute, koroatua, ongi eginga nahiz eguraldiak zerbait hondatu duen. Abako deituko dugunaren gainean harrizko besanga batzuk ageri dira (lau ziren, garai batean), lehoi baten antzeko piztia fantastikoak irudikatzen dituztenak. Irudi horiek ohikoak dira Gaztelan. Aipatu besangen gainean harrizko gailurra dugu, erremate gaztelarren taxukoa. Egun, goi-goian, burdinazko gurutze xume bat dauka; garbi ikusten da oraingo adabakia dela, balio artistikorik gabea.

Inguruko harriz egindako harmaileria lauangeluar baten gainean jarria dago pikota. Hiru koska ditu, bakoitza 30 cm-ko mailagaina duena eta 23 cm-ko mailartea.

XIV. mendean lortu zuen Lakuntzak hiribildu izatea, alkate eta almirantearekin; geroago erresumako gorteetan jarlekua izan zuen. Hortaz, bada, pikota erabiltzeko eskubidea, agintaritzaren hiltzeko epaiak betetzearren, garai hartan ahalmen hori baitzuten.